



400 elkarrizketa baino gehiago Reale Arenan ospaturiko Talentu Azokaren II. edizioan

160 lan-kontratu baino gehiago zituzten 46 enpresek abian jarri dituzte orain hautaketa-prozesuak, Azokako lehen hartu-emanaren ondoren

Donostiako enpresen eta gazteen arteko topaketa hori errazteaz gain, lan-merkatuarekin lehen konexioa egiteko Donostia Sustapeneko orientazio-zerbitzuak ere eskaini ziren

Arrakastatsutzat jo daiteke atzo, Donostiako Sustapenak antolatuta eta Realaren lankidetzari esker Reale Arenan ospatutako Donostiako Talentu Azokaren II. edizioa. Bertan parte hartu zuten 46 enpresek 160 lan-kontratu baino gehiago eskaini zituzten eta, azkenean, 400 elkarrizketa baino gehiago egin ziren. Azokaren aurretik lan-elkarrizketa bat hitzartzeko erregistratu ziren 298 pertsonetatik, % 51 emakumeak ziren eta % 52, 30 urtetik beherakoak.



Erregistratutako pertsonen gain, jende asko hitzordurik gabe joan zen azokara eta azkenean elkarrizketaren bat ere lortu zuten. Atzo bertan kontratazio ugari itxi baziren ere, hemendik aurrera langileak hautatzeko prozesua hasiko da, eta, horren ondorioz, etorkizuneko kontratazioak egingo dira.

Marisol Garmendia Garapen Ekonomiko eta Enplegu zinegotziaren ustez, "Talentuaren Azokak gure gazteei Donostian enplegu duinak eta kalitatezkoak bilatzeko aukera emateko helburua bete egin du. Lan-eskaintza ona duen enpresen ekosistema dugu, eta ahalegin berezia egiten ari gara horrelako topaketak sustatzeko, donostiar talentua etxean gera dadin".

Bigarren edizio honekin, Talentuaren Azoka Donostiako gazteen zerbitzura dagoen garapen profesionalerako tresna garrantzitsu bat bezala bilakatzen da, eta, gainera, tokiko enpresek profil kualifikatueterako dituzten lan-aukerak ikusarazteko aukera emanaz, sektore teknologikoetatik hasi eta tradizionalagoetaraino.

Aurten, ingeniari eta informatika izan dira gehien eskatu diren profilak, nahiz eta beste sektore batzuetarako eskaintzak ere bazeuden, hala nola, merkataritzakoa, marketingekoa eta komunikaziokoa, logopedak edo fisioterapiak.

"Zientziaren hiria gara", azpimarratu du Marisol Garmendiak, "eta, horregatik, gure hirira beren proiektua garatzeko begira jartzen diren eta lanpostu berriak sortzen dituzten enpresa handien lana erraztu behar dugu. Horrelako topaketek aukera ematen dute eskatzen dituzten profilak identifikatu eta kontratatuzeko".

Beren sektoreetako puntako enpresen eta pertsonen arteko topaketa sortzeaz gain, Azokak enpresa horiek, adibidez Smiley Owl Tech, Deneb Medical, Zuccheti, Countercraft edo Ibermaticak, gaitasun pertsonalen garapenari buruzko hitzaldiak emateko balio izan du, hala nola talde-lanari, pentsamendu kritikoari edo enpatiari buruzkoak, gai horiek gero eta zerikusi handiagoa bait dute jarrera pertsonalarekin eta hautaketa prozesuekin.

Talentu Azoka Donostia Sustapenak lan-merkatuarekin lehen kontaktuan laguntzeko estrategiaren parte da. Estrategia horren barruan sartzen da, halaber, 30 urtetik beherakoentzat atzerrian 6 hilabetez lan egiteko aukera, "Global Training" mugikortasun-bekei esker. Beka horien berri ere eman zen azokan, eta zabalik dute deialdi berri batean izena emateko epea.



Tokiko talentuaren kontratazioa eta atxikipena errazteko lan horretan, Azokan gogorarazi zen dagoeneko Donostiako Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus) daudela, besteak beste, langileak kontratatzeke, talentua atxikitzeke edo enpresa berriak sortzeke laguntza ekonomikoen sorta.

Azkenik, Talentuaren Azokara hurbiltzerik izan ez zuten hautagaiek aukera dute beren profilak Donostiako Sustapenari emateko eta enpresa parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko.

